



IRIONDO ARANA, Xabier

HAEEko Bekaduna  
Mendialai kalea, 23  
20009 Donostia  
Tel. 216374 - Fax. 219404

BIBLID [1137-1951 (1997), 1; 43-50]

---

# Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertsala: Sorrera, eduki juridikoa eta etorkizuna<sup>1</sup>

(Universal statement of linguistic rights: birth, juridical contents  
and future)

---

**1** 1996ko ekainean burutu da Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren erredakzio prozesua, Bartzelonan. Hemendik aurrera aro berri bat hasten da, non helburua baita Nazio Batuen Organizazioak dokumentua bere egin dezala. Lan honetan saiatu gara azaltzen deklarazioa osatzeko jarraitutako prozedura, bertan jasotzen diren printzipio orokorrak eta Deklarazioaren etorkizuna zein izan daitekeen. Azken xedea Deklarazioa zer den argitu, eta munduko hizkuntza guztien arteko pakea lortzearen garrantzia azaltzea izan da.

**E**n Junio de 1996 finaliza en Barcelona el proceso de redacción de la Declaración Universal de los Derechos Lingüísticos. A partir de entonces comienza una nueva etapa cuyo objetivo es la adopción de la misma por la Organización de las Naciones Unidas. En el presente trabajo tratamos de exponer el proceso seguido para configurar dicha declaración, los principios generales recogidos en ella y cual pudiera ser su futuro. Nuestro objetivo final es, pues, arrojar luz sobre dicha Declaración y explicar la importancia que tiene la consecución de la paz entre todas las diferentes lenguas del mundo.

**L**e processus de rédaction de la Déclaration Universelle des Droits Linguistiques a touché à sa fin à Barcelone, au mois de juin 1996. A partir de maintenant s'ouvre une nouvelle étape avec la présentation en société de ce document dont la conséquence désirée est l'adoption de la Déclaration par l'ONU. Dans ce travail se dessine une panoramique générale du processus d'élaboration, les principes généraux et l'avenir de cette Déclaration, dans le but d'expliquer au lecteur en quoi consiste la Déclaration et l'importance d'obtenir la paix linguistique désirée entre toutes les langues du monde.

---

1. **Hizkuntz Eskubiden Deklarazio Unibertsala: aurre-historia laburraz zertzeladak** 2. **Aro berri baten hasiera** 3. **Hizkuntz eskubideak eta beste Giza eskubideak** 4. **Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipio orokorrak**

---

## 1. Hizkuntz Eskubiden Deklarazio Unibertsala: aurre-historia laburraz zertzeladak

Aurre-historiari buruzko zertzelada labur hauetan hiru galdera nagusiren erantzunak bilatzen sahiatuko gara.

- 1.- Noiz eta nola sortu zen halako Deklarazio baten ideia?
- 2.- Nola eta nork erredaktatu zuen dokumentua?
- 3.- Zertarako balio du?

Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala, bi urtez mamitzen joan den proiektu baten ondorio da.

1994ko irailan, PEN Clubaren *Comité de Traduccions I Drets Lingüístics* delakoak eta CIEMEN (*Centre Internacional Escarré per a les Minories Etniques I les Nacions*) taldeak Hizkuntz Eskubideei buruzko Deklarazio baten beharraz jabeturik, nazioarteko aditu talde bati Deklarazioa izango zenaren lehen zirriborroa egiteko enkargua egin zion.

Nazioarteko aditu talde hau, disziplina desberdinetako 50 bat partaidek osatzen zuten, tartean soziolinguistak, juristak, pedagogoak, linguistak, soziologoak eta filologoak zeudelarik.

Aipaturiko bi talde sustatzaileen iritziz beharrezkoa suertatzen zen herrialde desberdinen hizkuntz eskubideak finkatu eta bateratuko zituen testua. Hizkuntza desberdinen egoerak bateratu eta finkatuko zituen marko juridiko bakar baten gabezia oharturik, Deklarazio Unibertsal baten beharra ezinbestekotzat ikusten zuten aipaturiko bi talde eragileek, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren antzeko zerbait, hizkuntza guztiei eskubide gutxiengo batzuek esleitzeko gai izango zena, edozein hizkuntzari errespetatu beharreko eskubide gutxiengo eta oinarrikoak.

Idea hori barneratuz, CIEMEN eta PEN Club taldeek adituen talde bat jarri zuten lanean,

HEDUa izango zenaren lehen zirriborroa idatz zezaten, beti ere helburu finko batekin, 1996ko Ekainean Bartzelonan ospatuko zen Hizkuntz Eskubideen Munduko Konferentzian HEDUa aurkeztea eta onartzea.

Lehen zirriborro hura egin zenetik, 50 adituk, 32 PEN zentruk, 64 erakundek - unibertsitate, ikerketa zentru eta erakunde publikoak barne - eta 100 erakunde ez-gubernamentalek hartu zuten parte bi urtez luzatu zen prozesu luze zein dinamiko horretan, guztira 12 zirriborro desberdin eztabaidatu zirelarik.

Azkenik, 1996ko ekainaren 6an Bartzelonan ospaturiko Hizkuntz Eskubideen Munduko Konferentzian HEDUa partaideen sinadurarako ireki zen, bertan 90 Estatuetako 220 lagunek sinatu zutelarik.

## 2. Aro berri baten hasiera

Bartzelonako Konferentziak, eta HEDUaren sinadurak, prozesu baten amaiera eta aro berri baten hasiera markatzen ditu.

Batetik, ekainaren 6ak bi urte lehenago hasitako erredakzio eta eztabaida prozesuaren amaiera data suposatzen du, ondorio bezala gero aztertuko dugun Deklarazioaren onarpena dagoelarik.

Bestetik, ekainaren 6an aro berri baten hasieran gaude, Nazio Batuek onarturiko nazioarteko hitzarmen baten onarpenarekin bukatuko den aroa.

Aro honetan HEDUaren pisu morala areagotu behar da, horretarako erakunde, elkarte, legebiltzar zein gobernu ezberdinen babesak bilatu behar delarik, hauen HEDUarekiko atxekimendua; eta horretan dago orain prozesua, ahalik eta kontsentsu eta adostasun zabalena bilatzean, behingoz horrenbeste desio dugun munduko bake linguistiko iraunkorra lortzearren.

Helburu horri begira, bi prozesu ezberdin baina paralelo jarri dira martxan:

Batetik, HEDUaren aurkezpena eta zabalpena munduan zehar, HEDUaren edukia eta birtuteak aurkeztuz eta atxekimenduak lortuz -prozesu honen barne kokatzen delarik Iruñako sinposioa -.

Bestetik, Nazio Batuen aurrean martxan dagoen prozesua bera, hau askoz konplexuagoa eta azaletik bederen argitu beharrekoa.

---

1. Testu hau UPV/EHUren 233.224-HA 079/96 Ikerketa Proiektuari esker egin ahal izan da eta "Europako Hizkuntzei eta Legediei buruzko Nazioarteko III Sinposioan" (Iruña, 1997ko maiatzaren 8-9-10) aurkeztu zen ponentzia moduan.

Nazio Batuen aurrean martxan jarritako prozesuak, HEDUa Nazio Batuen Nazioarteko Hitzarmen bezala onartzea du helburu. Horretarako, Bartzelonan HEDUa UNESCOko Zuzendari Orokorrari aurkeztu zitzaion, eta honek testua jaso eta beratu aztertzeko konpromezua hartu zuen etorkizunean UNESCOko Kontseilu Exekutiboaren aurrean aurkezteko helburuarekin.

Horretarako, Bartzelonan Batzorde Zientifiko bat eta Jarraipenerako Batzorde bat eratu ziren, bakoitzak zeregin garbi bat edukiko zuelarik.

Batzorde Zientifikoak UNESCOrekin batera lan egingo zuen, UNESCOren laguntzaile izango zelarik HEDUaren azterketa prozesuan.

Jarraipenerako Batzordeak, UNESCOk proposaturiko ekintzak aztertu, dinamizatu eta Bartzelonan bilduriko Adituen, Erakunde Ez-Gubernamentalaren eta bestelako erakundearen koordinazio eta informazio lanak bideratuko zituen.

Gaurko egunean, Jarraipenerako Batzordeak jakinerazi digunez, UNESCOko Kontseilu Exekutiboak Parisen Ekainean egingo duen bilerako gai-zerrendan aurkitzen da HEDUa. Kontseilu exekutiboaren onarpen tramitea pasako balu, Federico Mayor Zaragoza Jaunak - UNESCOko Zuzendari Orokorrak - hartua duen konpromezuaren arabera, UNESCOko Konferentzia Orokorraren aurrean aurkeztuko luke eta bertan onartua izanez gero, Nazio Batuen Asanblada Orokorrera bidaliko litzateke, hala Nazioarteko Hitzarmen bilakatu eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren konplementu izatera pasako litzatekeelarik.

### **3. Hizkuntz eskubideak eta beste Giza eskubideak**

Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren Printzipio Orokorraren azterketa juridikoan sartu aurretik, lehenik Deklarazio honen eduki nagusia diren hizkuntz eskubideez bi gogoeta nagusi egin nahiko nituzke.

Bi gogoeta hauek bi galdera garrantzitsuei erantzuteko egin nizkion neure buruari, ekainean Bartzelonatik itzuli nintzenean:

1.- Zertarako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

2.- Zein da hizkuntz eskubideen izaera (bigarren galdera hau ere hizkuntz eskubideen Deklarazio Unibertsal baten behararekin lotu daitekeelarik.)

Lehen galderari erantzunez, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren beharrari

alegia, gogoeta sakona bezain korapilotsua da, baina kontsiderazio ttipi batetan gelditu nahiko nuke, eta zuen arreta horrera zuzendu.

Hizkuntz eskubideen eta beste giza eskubideen arteko desberdintasuna, eta honekin batera desberdintasun hau gainditzeko gurea bezelako Deklarazio Unibertsal baten beharra.

Hizkuntz eskubideez urteetan hitz egin da, sahiakera ugari egin dira, eta disziplina ugari aritu dira kontzeptu hau argitu nahian. Ez dira ere gutxi izan hizkuntz eskubideren bat bere baitan jaso duten nazioarteko hitzarmenak, bai Nazio Batuen baitan, bai Europear Kontseiluaren baitan, bai beranduago Europar Batasuneko erakunde anitzek emaniko Ebazpen zein gomendioetan, bai Estatuaren arteko hitzarmen bilateraletan ere. Baina, tamalez, hizkuntz eskubideak beste kontzeptu zabalago batzuren barnean izkutaturik etorri dira; batzuetan "gutxiengo" kontzeptu zabalaren barnean, gutxiengo horien eskubideetariko bat bezala, besteetan beste giza eskubide baten baitan, hala nola, adierazpen askatasunaren eduki linguistikoa edo hezkuntza eskubidearen eduki linguistikoa edo prozedura judizial baten baitan, defentsarako eskubidearen barnean.

Baina ez dira inoiz banandurik edo bakundurik agertu, direna bezala, hizkuntz eskubide bezala. Hala, hizkuntz eskubideak ez dira kontzeptu definitu bat, ez dira orain arte behintzat, argi eta garbi definituriko kontzeptu bat.

Argi izan dugun gauza bakarra zera da, badirela munduan pertsona asko eta asko zeintzuren hizkuntz eskubideak ez diren errespetatzen, badirela pertsona asko munduan hizkuntz eskubide horiek ez dituztenak. Zer diren ere zehazki jakin gabe, jakin badakigu nork dituen bere osotasunean eta nork ez, nork profitatzen dituen bere osotasunean eta nork ez. Tove Skutnab-Kangas eta Robert Phillipson-en liburu zoragarriak bere 2. orrialdean dionaren arabera, munduan dauden 6.000-7.000 hizkuntzetariko berrehun batek dauka solik nolabaiteko ofizialtasun estatusa eta ofizialtasun estatusak hizkuntz eskubideak bere osotasunean edukitzeko eskubidea ematen duela suposatuz -hori asko suposatzea bada ere - soilik berrehun hizkuntza hauen hizlariak dituzte bermatuak beraien hizkuntz eskubideak.

Zein estatuk edo zein nazioarteko erakundek onartuko luke giza eskubideen horrelako urraketa edo ukapena, ukaturikoa hizkuntz eskubidea izan beharrean beste giza eskubide bat balitz?

Beste giza eskubide batzuk urratzerakoan segituan estatu urratzailea ez-demokratikotzat hartzen bada, zergatik ez erabili hizkuntz eskubideen errespetoa edo errespeto eza Estatu

baten demokraziaren neurketarako indize moduan?

Giza eskubideak edozein talde edo gizabanakori, bere bizilekua edozein dela ere babesten zaizkion eskubideak dira, eta beraien urrapena edo ukapena guztiz debekatua eta zigortua dago, edo hala beharko luke behintzat.

Hau da, hain zuzen ere, hizkuntz eskubideek jasan behar izan duten zametariko bat, alegia, bere identifikazio argi ezagatik, bere indefinizioa dela eta, beste giza eskubideekiko parekotasuna ukatu zaie.

Jar ditzagun une batez hizkuntz eskubideak beste giza eskubideen lekuan, eta galde diezaiozun geure buruari zeintzuk diren hizkuntz eskubideen urrapena baimentzeko gizarteak dituen arazoak.

Neure uste apalean, argitasun falta edo definizio zehatz baten falta izan dira arazo horietariko batzu, eta neure uste apalean ere, hau da Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak daukan birtuteetariko bat, bide batez horrelako deklarazio baten beharra justifikatzen duen arazoietariko bat, hizkuntz eskubideen identifikazioa eta materializazioa aldarrikatu daitezkeen eskubide konkretu batzuetan, hizkuntz eskubideen edukiaren identifikazioa eta berauen positibazioa lotesle izan daitezkeen nazioarteko testu juridiko batetan - zein testu mota izan beharko lukeen eztabaida gai izan daitekeelarik -.

Bigarren galderari helduz alegia, hizkuntz eskubideen izaera bikoitzari, Deklarazio honek ongi asko adierazten digu hizkuntz eskubideek izaera bikoitza dutela, batetik kolektiboa, taldekoa, hizkuntz komunitateari dagokion eskubide bezala, eta bestetik indibiduala edo gizabanako bakoitzarena, pertsona orori dagokion hizkuntz eskubidea.

Deklarazioak bere aurreko atalean argi esaten du " hizkuntz eskubideen dimentsio indibiduala eta kolektiboa banaezinak direla, hizkuntzak komunitate batean daukalako bere sorrera, bertan sortzen da eta bertan erabiltzen dute gizabanakoek ere beren arteko hartuemanetarako. Hala, hizkuntz eskubideen erabilera indibiduala soilik bermatu daiteke modu berean errespetatzen direnean hizkuntz komunitate eta hizkuntz talde guztien eskubide kolektiboak".

Izugarri garrantzitsua iruditzen zait deklarazioak egiten duen baieztapen hau, nahiz eta idazlan honen luzera kontutan izanik ez dugun aukerarik izango hizkuntz komunitate eta hizkuntz taldearen arteko desberdinketan sakontzeko.

Beraz, hizkuntz eskubideen izaera bikoitza, Deklarazio honek barneratzen duen printzipioetariko bat izanik, zertan gauzatzen den ikusi nahiko nuke, printzipio orokorren azterketara pasa aurretik.

Bi hitzetan zera suposatuko lukete hizkuntz eskubideek maila pertsonal edo indibidualean eta maila kolektiboan.

Maila **indibidualean**, pertsona orok dauka bere ama hizkuntzarekin identifikatzeko eta identifikatua izateko posibilitatea, bere ama hizkuntza, hizkuntza gutxitua edo gehiengoaren hizkuntza den kontutan hartu gabe. Identifikazio honek suposatuko luke norbanakoaren eskubidea bere ama hizkuntza ikasteko, ama hizkuntza horretan derrigorrezko ikasketak burutzeko eta maila ofizialean ama hizkuntza erabiltzeko eskubidea.

Maila **kolektiboan**, talde orok dauka superbizitzeko eta existitzeko edo izateko eskubidea, taldea gutxitua edo gehiengoaren kontutan hartu gabe eta bere ezagutza ofiziala, estatusa, subiranotasun maila zein diren kontutan hartu gabe. Izateko eskubide honek suposatuko luke taldearen eskubidea bere hizkuntzaz profintatu eta garatzeko, eskolak sortu eta mantentzeko, Estatuko arazo politikoetan parte hartzeko eta arazo politikoetan ordezkatua izateko, eta nolabaiteko autonomia maila bere arazo propioak kudeatzeko, gutxienez Kultura, Hezkuntza eta Gizarte gaietan, honetarako beharrezko diren finantza neurri propioekin.

Eta hemen egon daiteke, maila kolektiboan alegia, orain artean hizkuntz eskubideek eduki duten tratua gakoetariko bat, eta ondorioz, gure Deklarazioaren beharrene beste arazoietariko bat.

Maila kolektiboan hizkuntz eskubideek komunitatearen izateko, existitzeko, eta desberdin izateko eskubidea suposatzeak, urteetan Estatuaren aldetik Batasun Nazionalaren edo Estatuaren integritatearen aurkako mehatxu bezala ikusiak izan dira.

Hizkuntz eskubideak eta eskubide kulturalak ezinbestekoak dira komunitatearen superbizipenerako eta bere desberdintasuna mantentzeko, eta hori Estatuak ez dute urtetan begi onez ikusi, beraien kontrako eraso edo mehatxu moduan baizik.

Baina gure Deklarazioan eta hizkuntz eskubideen definizioan ikus daiteke hizkuntz eskubideen errespetoa eta taldeen desberdintasunerako eskubidearen errespetoa direla pakearen eta elkar-bizitzaren bide bakarrak, horregatik ere Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren garrantzia eta beharra.



Besterik gabe, hel diezaioGUN, orain arte esandakoa gogoan hartuz, printzipio orokorren azterketari.

#### 4. Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipio orokorrak

Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipio orokorren azterketari helduz, lehenik zera esan nahiko nuke; hizkuntz eskubideen gaia, gai juridiko zein metajuridikoa dela, bertan nahasten baitira zuzenbide publiko zein pribatuko kontzeptuak eta instituzioak eta baita beste alor askotako kontzeptuak, zuzenbidearentzat arrotzak izanik, hizkuntz zuzenbideak juridifikatu dituenak, besteak beste, soziolinguistikako, linguistikako, soziologiako zein beste giza-zientzietako kontzeptu asko. Horretan datza hain zuzen ere, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipioen azterketa juridikoa egitearen zailtasunak.



8. irudia

Ez dago batere argi, ez behintzat niretzat, hizkuntz eskubideen gaia zein den, ez dago argi hizkuntz eskubidea zer denaren definizio orokor eta guztiok onarturikoa horregatik, neure ustez, honelako adierazpen unibertsal baten garrantzia, hizkuntz eskubideen eduki esentziala edo nukleo gogorra zer den definituko duen adierazpena, eta guzti hori maila unibertsalean.

Printzipio orokorrei helduz, printzipio hauek 7. eta 14. artikuluen bitartean aurkitzen ditugu. Hauen azterketa egiterakoan, azterketa juridikoa, azterketa hori nola egin pentsatzen ari nintzenean, modu desberdin ugari bururatu zitzaizkidan, baina azkenik, printzipio orokor hauek aztertzeko modu egokiena iruditu zitzaidan, beste nazioarteko hitzarmen batzuk barneratzen dituzten printzipioen eta gure Deklarazio Unibertsalak barneratzen dituen printzipioen arteko azterketa gonbaratua.

Horretarako hiru hitzarmen nagusi izan ditut kontutan:

- Europako Lurraldeetako edota gutxiengoaren hizkuntzen karta, Europako Kontseiluak 1992ko Ekainaren 29an hitzarmen moduan onartu zuena eta Estatuaren sinadura eta ratifikaziorako ireki zena 1992ko urriaren 2an. (*Charte Européenne des Langues Régionales ou Minoritaires*)
- Gutxiengo nazionalen babeserako hitzarmen-markoa, Europako Kontseiluak 1994ko Azaroaren 10ean konbenio moduan onartu zuena eta Estatuaren sinadurarako eta ratifikaziorako ireki zena 1995eko otsailan. (*Convention-Cadre pour la Protection des Minorités Nationales*)
- Nazio Batuetako 47/135 Ebazpena, "Nazio, etnia, erlijio edo Hizkuntza Gutxiengoko kide diren pertsonen eskubideei buruzko Deklarazioa", 1992ko Abenduaren 18an Nazio Batuetako Batzarre orokorrak onartua. (*Resolution 47/135, Declaration on the Rights of Persons Belonging to National or Ethnic, Religious and Linguistic Minorities*)

Hiru hitzarmen hauek erabiliz, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko printzipio nagusiak identifikatzen eta beraien ondorio juridikoak aztertzen saiatuko naiz.

Aztergai izango ditugun puntuak ondorengoak izango dira:

- 1.- Hitzarmen eta Deklarazio hauen sujetua edo babes-sujetua.
- 2.- Berdintasunaren Printzipioa. (10. art.)
- 3.- Arlo publiko zein pribatuan erabilera askatasuna. (12. art.)
- 4.- Onuragarriagoa den araua aplikatzearen printzipioa edo xedapen minimoen printzipioa. (14. art.)

Lehenengo aztergaia, lau hitzarmen hauen *subjektua* bera dugu, hau da, zer edo nor babesteko dagoen egina hitzarmenatariko bakoitza.

Europako Lurraldeetako edota gutxiengoaren Hizkuntzen kartak bere lehen artikuluan espreski adierazten digu zein den babesturiko objektua, "Europar lurraldeetako edota gutxiengoaren

hizkuntza” bertan barne hartzen direlarik bai lurralde konkretu bati lotuak bai lurralde finkorik gabekoak.

Hala dio lehen artikulua:

1. art. Definizioak:

Hitzarmen honen arabera:

a) Lurraldeetako edota gutxiengoaren hizkuntzatzat hartzen ditu konbenio honek:

i) Lurralde konkretu batean estatu kide talde batek tradizionalki erabilitako hizkuntzak, Estatuko biztanlegoarekin gonbaratuz, talde gutxitua osatzen dutelarik.

ii) Estatuko beste biztanleek hitzegiten duten/dituzten hizkuntza/hizkuntzekiko desberdina/k direnak.

b) Lurralde finkorik gabeko hizkuntzatzat hartzen ditu konbenio honek:

Estatuko kideek tradizionalki erabilitako hizkuntzak, Estatuko beste biztanleek hitzegiten dituzten hizkuntzekiko desberdinak direnak, baina ezin daitezkeelarik eremu geografiko finko batekin lotu.

Beraz, nahiko argi dago Karta honen babes objektua edo subjektua zein den, hizkuntza lurraldetar eta gutxitua.

Gutxiengo Nazionalen babeserako hitzarmen-markoari so eginez, zera aurkitzen dugu, bere babeserako subjektua gutxiengo nazionala izanik, hitzarmen guztia aztertuz ez dela inondik inora gutxiengo nazionalaren definiziorik aurkitzen. Harrigarria badirudi ere, gutxiengo nazionalen babeserako sortutako hitzarmen honek ez du babestu nahi duen subjektu horren definiziorik ematen. Eta hara non, hitzarmen honekin batera datorren azalpenerako dokumentuak zera adierazten digun:

“...Giza Eskubideen Zuzendaritzako komiteak, gutxiengo nazionalen terminoaren inguruan nabaritu duen kontsensu edo adostasun falta dela eta, eta Europako Kontseiluko kide diren Estatuaren arteko adostasuna ezinezkoa suertatu delarik, irteera pragmatiko bat aukeratzea erabaki du: Konbenioa sinatzen duten estatuak, konbenioa martxan jartzerakoan, beraien interpretazio propioa emango diote Gutxiengo nazional termino honi.”

Dudarik gabe, eta beste akats nabari batzuren artean, hau izan daiteke Konbenio honen punturik ahulena, konbenioaren subjektu edo babestu nahi den subjektuaren definizio falta.

Nazio, etnia, erlijio eta hizkuntza gutxiengoko kide diren pertsonen eskubideei

buruzko deklarazioak ordea, nazio, etnia, erlijio eta hizkuntza gutxiengoetako kide diren pertsonak ditu babes-subjektu, alegia, pertsona horien eskubideak babesten ditu.

Gutxiengoaren eskubideak babestera guztiz zuzentzen den nazio batuetako lehen bitartekoa izanik, oso ondo jaso zen nazioarteko komunitatean.

Baina subjektuaren ikuspuntutik, zer babesten du deklarazio honek, noren edo nortzuren eskubideak babesten ditu?

Izenak berak adierazten duen moduan, gutxiengoak ditu babes-subjektu deklarazio honek, gutxiengo desberdinak, beste batzuren artean, hizkuntza gutxiengoak, eta hor dago deklarazio honen gakoa hain zuzen ere, gutxiengo kontzeptuaren erabilpenean eta definizio ezean.

Gutxiengoa zer den identifikatzea giza-zientziek eta zuzenbide internazionalak izan duen erronka nagusietako bat da, oraindik argitu gabekoa eta adostasunez definitua ez dagoena.

Maiz, gutxitu terminoa erabili izan da hain zuzen ere, gutxitu bezala kalifikatuak diren komunitateen eskubideak murrizteko, hori dela eta, berriro ere, Nazio Batuen Deklarazio honen subjektuarekiko desadostasuna.

Eta zer dio gure Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak subjektu edo objektuaren inguruan?

Neure ustez, gure hitzarmen edo adierazpen honek benetan adierazgarri eta txalogarri den zerbait badu, hain zuzen ere babestu nahi duen subjektuaren definizioa bera.

Deklarazio honek hizkuntza komunitatea hartzen du eskubideen subjektu bezala eta babes-subjektu bezala; eta lehen artikuluan definitu ondoren, printzipio orokorrei buruzko atalean, eskubide zehatzak uztartzen dizkio, bai komunitateari bai komunitateko partaide den gizabanakoari ere.

Hau da, printzipio orokorren artean aipagarrienetako bat da, hizkuntza komunitatea erabiltzea subjektu bezala eta hizkuntza komunitatea eta komunitateko partaide diren pertsonak jartzea hizkuntza eskubide guztien jabe bezala.

Hizkuntza komunitatea lehen artikuluan definitzerakoan, bi kontzeptu definitzen ditu, batetik hizkuntza komunitatea eta bestetik berea den hizkuntza edo berezko hizkuntza. Deklarazio honetan nagusi diren bi termino dira azalpen txiki bat merezi dutenak.

Hizkuntz komunitatea definitzerakoan zera dio Deklarazioak:

“Deklarazio honetan hizkuntz komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean - eremua errekonozitua izan ala ez - finkatuz, bere burua herrizat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat”

Eta hurrengo lerroan dion moduan:

“Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia.”

Horra bi definizio argi, urteetan eztabaidagai izan diren kontzeptuak alde batera utziz, hizkuntz eskubideen subjektuak zeintzuk diren finkatzeko.

Noski, hizkuntz komunitateari eskubide batzuk esleitzen zaizkio Deklarazio honetan, eta baita ere hizkuntza propio edo berezko hizkuntzari.

Hau izango litzateke, nere ustez, Deklarazioaren printzipioetan aipagarrienetarikoa, gero aipatuko ditudan beste batzuren artean, hizkuntz eskubideen jabeak eta titularrak zein diren eta babesa zeini ematen zaion definitzen asmatu duela, beste hitzarmenek egiten jakin izan ez dutena: subjektuaren identifikazioa.

Bigarren aztergaia **berdintasun printzipioa** dugu, alegia, beste sailkapen batzuk alde batera utziz Deklarazioak egiten duen hizkuntza guztien berdintasunaren aldarrikapena.

Beste hitzarmenek egiten dituzten sailkapenak alde batera utziz - hizkuntza lurraldetarrak, ofizialak, ez-ofizialak, gutxieta, zaharrak zein berriak - Deklarazioak hizkuntza guztien berdintasuna eta babesa aldarrikatzen ditu, guztien kontsiderazioa gure ondasun preziatuena bezala eta guztien elkar errespetoa.

Horretarako Deklarazioak eskubide zehatz batzuk esleitzen dizkio hizkuntza orori, gutxiengo eskubide batzuk hizkuntzen elkarbizipena eta berdintasuna bermatuko dituztenak.

Berdintasun printzipio honetan ordea, eta beste modu batera izan ezin zitekeen moduan, hizkuntzen elkar errespetoa eta elkarbizitza bermatuko dituen oinarri batzuk ezartzen dira, eta horretarako, mailaketa ttipi bat sartzen da eskubideak esleitzerakoan.

Lehenengo artikulua bere bigarren atalean dion moduan:

“... eta hizkuntz eskubideen oso-betetasunaren erreferentzetat hartzen du hizkuntz komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan...”

Eskubideen *maximum* edo gehiengo bat finkatzen da, hain zuzen ere, hizkuntz komunitateak bere lurralde historikoan dituen eskubideak, eta hortik abiatuz ezar daiteke mailakatze edo *continuum* bat, tratu desberdin bat beraz, hizkuntz eskubideen oso-betetasunetik abiatuz beheruntz gradualki jeisten doana.

Bigarren mailan talde linguistikoak edo hizkuntz taldeak leudeke; hauen ezaugarri nagusia, beste hizkuntz komunitate baten lurraldean kokaturik egotea da, historikotasun txikiagoarekin eta hizkuntz komunitate horrekin elkar bizitzen, baina hizkuntza desberdina izanik.

Hau ere hizkuntz eskubideen jabeak dira, baina beraien historikotasun urriagoa dela eta, hizkuntz komunitate baten lurraldean kokaturik egoteagatik, beraien hizkuntza ez da Lurraldeko hizkuntza propioa edo berezkoa, eta ondorioz bigarren talde honek eta bere hiztunek litzatezen hizkuntz eskubideak urriagoak izan daitezke, nahiz bien arteko elkar-bizipena bien arteko errespeto osoz eta printzipio demokratikoak errespetatuz egin beharko den.

Ikusi dugunez, hizkuntza orok izan behar dituen berme eta eskubide minimoak errespetatuz, Deklarazio honek tratu desberdin bat emateko aukera aurikusten du talde eta komunitate linguistikoak gune lurraldetar berdinetan aurkitzen direnean, eta hori da hain zuzen ere, berdintasun printzipioaren edukia, inongo diskriminaziorik gabe, egoera desberdinak desberdin tratatzea.

Hizkuntz komunitatearen tratu bereziak, eta bere hizkuntzaren edo berezko hizkuntzaren tratu bereziak, hizkuntza propio izateari eduki juridiko bat eransten dio.

Orain artean ofizialtasuna edo koofizialtasuna baziren bakarrik hizkuntzaren estatusaren adierazle eta ondorioz, kalifikazio hori zeukaten hizkuntzek ondorio juridikoak zituzten, Deklarazio honek kalifikazio horiekin hautsi eta besteen gainetik dagoen kalifikazio bat ezagutarazten digu, hizkuntza propioarena edo berezko hizkuntzarena alegia.

Berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa, Espainiar Estatuko zenbait Autonomi Estatutuek bere baitan jasotzen zuten hizkuntzaren kalitate bat izan da, urteetan ezaguna baina ondorio juridikorik gabekoa. Hizkuntza propioa izateak, hizkuntza baten berezotasuna adierazten zuen, lurralde konkretu batekiko atxikimendua eta betikotasuna, baina ez zitzaion, orain artean behintzat, inongo ondorio juridikorik eransten, ez

zuen ofizial bezala kalifikaturiko beste hizkuntzekiko inongo plusik edo ondorio gehiagorik.

Baina Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, berezko hizkuntza jartzen du hizkuntz eskubideen osotasunaren erreferente moduan, beste hizkuntzen gainetik.

Bere 2. artikuluan adierazten duen moduan "Hizkuntz komunitate bat eta hizkuntz talde bat hizkuntz komunitatearen lurraldean elkarbizitzen ari badira, beraien historikotasun desberdina kontutan harturik, tratatu orekatzaile bat gomendagarria izan daiteke" eta funtsean artikulua honek, beste artikulua batzuekin batera irakurri, zera adierazi nahi digu, badirela arrazoiak talde linguistikoak eta komunitate linguistikoak modu ezberdinean tratatzea gomenda dezaketena, edo beste modu batera esanda, hizkuntz propioak ondorio juridiko batzuk izan ditzakeela, lurralde bereko beste hizkuntzekiko beste maila batetan jarriko luketena.

Hirugarren aztergaia, 12. artikuluan agertzen den arlo publiko zein pribatua **gizabanako bakoitzak bere hizkuntza erabiltzeko duen askatasuna da**. Printzipio honen arabera, bakoitzak bere hizkuntza erabiltzeko duen askatasuna absolutua da arlo pribatu eta familiarrean, baina 12.1 artikulua dionaren arabera

"Gizaki orok eskubidea dauka alor publikoko jardura guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa bada."

Hona hemen lehen aipaturiko berezko hizkuntzaren ondorio juridikoetarikoa bat, erabilera arlo ofizialean edo publikoan. Artikulu honen arabera, arlo publikoan aktibitate oro bere hizkuntzan aurrera eramateko eskubide osoa soilik berezko hizkuntzan bermatzen da, baina ez beste hizkuntzatan, hauetan askatasun oso hori matizatu egiten da.

Azken printzipiora pasatuz, **arau onuragarriagoaren aplikazioaren printzipioa edo xedapen minimoen printzipioa** deitu dudana, bi hitz besterik ez.

Printzipio hau amankomuna da aztergai izan ditugun hitzarmen edo deklarazio guztietan. Europako Lurraldeetako edota gutxiengo hizkuntzen Kartak bere 4. artikuluan dionaren arabera:

"Konbentzio honetako xedapenek ez dute gutxiengoek jadanik daukaten estatus juridikoaren edo babes maila altuago baten kontra egingo"

Gutxiengo nazionalen babeserako konbenio-markoak bere 22. artikuluan zera dio

"Konbenio honetako xedapenak ez dira inoiz ulertuko gutxiengoek, nazioarteko hitzarmenetan edo estatuetakoa ordenamendu juridikoetan aurrezagaturik dituzten beste eskubide edo askatasunen muga edo murrizketa bezala"

Nazio, Etnia, Erlijio eta Hizkuntz gutxiengoetako pertsonen eskubideen deklarazioak bere 8.2. artikuluan dionaren arabera:

"Deklarazio honetan agertzen diren eskubideak ez dira inoiz pertsona orok unibertsalki aurrezagatuak dituen giza eskubide edo oinarriko askatasunen aurka joango."

Azkenik, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak bere 14. artikuluan dionaren arabera:

"Deklarazio honetako xedapenak ezin dira interpretatu edo erabili, Estatu barruko nahiz nazioarteko errejimeneko edozein arau edo praktikak hizkuntza bat bere lurraldean erabiltzeko ezarritako tratatu faboragarriagoaren aurka."

Azken finean, artikulua honek eta beste hitzarmenetako artikuluek adierazten digutena zera da, Deklarazio hauek ez dutela balio behar hizkuntza baten egungo estatusa gutxitu dadin.

Amaitzeko eta konklusio gisa, zera laburbildu nahiko nuke: Deklarazio honek daukan garrantzia oso handia dela bi arlotan, batetik hizkuntz eskubideak zer diren definitu duelako, hizkuntz eskubide minimoak eta hizkuntza guztiei zor zaizkionak, eta bestetik babestu beharreko subjektua eta objektua zein diren azkenik finkatu duelako, gutxiengo, gutxitu eta beste sofisma batzuk alde batera utziz, hizkuntz komunitateak eta hizkuntzak berak babestuz.

Baina nire uste apalean, Deklarazio honek beste gauza interesgarriago eta aberatsago bat lortzea du helburu, hizkuntzen arteko bake hitzarmena. Behingoz konturatu gaitzen hizkuntza guztiak direla gizaki ororen jabego nagusi, unibertsu osoak gure bezala senti ditzen hizkuntz guztiak, eta denak direla gure ondare natural preziatuena. Behingoz lan egin dezagun aniztasuna batasunean eslogan bat baina zerbait gehiago izan dadin eta saiatu gaitzen hizkuntzen arteko benetako pakea sortzen.

Zuen baimenarekin eta Lizardiren barkamenarekin aspaldian gure poeta nagusienetako batek esan zituen hitzekin amaitu nahiko nuke, hitz horiek barneratzen duten mezua, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak barneratzen duen mezu bera baita.

*"Lehena zegoen orainaz,  
ele gozoka bitzuek,  
mintzo bera ziharduten,  
ene asaben lokarri zaharra,  
Jaunari zor etzan eten."*